

Atzerriko gazteak EAEko biztanle gazteen % 7 dira

Hegoamerikatik datoz nagusiki. Gehienek 25 eta 29 urte bitarteko adina dute eta 10 gazte etorkinetik 5 Bizkaian erroldatuta daude



EAEen erroldatuta dauden biztanle gazte atzerritarrek 28.431 dira, 2006ko urtarrilaren 1ari dagozkion Biztanleen Udal Erroldako datuen arabera. Datu hauek 2005ekoekin alderatzen baditugu, 4.067 gazte etorkin gehiago dagoela antzematen da. Etorrin gazteen kolektiboak EAEko biztanle gazteen % 7 osatzen du, 2005ean baino puntu

bat gehiago.


Datuek aditzera ematen dute atzerriko mutil gehiago dagoela neskekin konparatuta, baina aldea oso txikia da.

Atzerriko nazionalitatea izanik, EAEen erroldatuta dauden 15 eta 29 urte bitarteko biztanle atzerritarrek. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 2005-2006				
	2005		2006	
EAE	24.274	100	28.341	100
Gizonak	12.277	50,6	14.181	50
Emakumeak	11.997	49,4	14.160	50

Iturria: INE eta bertan egina. Biztanleen Udal Errolda urtarrilaren 1ean

Adin-taldeei bagagozkio, gazte atzerritarren % 50,6k 25 eta 29 urte bitarteko adina dute; % 31,9k 20 eta 24 urte bitartekoa; eta % 17,4k 15 eta 19 urte bitartekoa. 2005etik hona etorkin gazteen kopuruak gora egin du hiru adin-taldeetan, bereziki, gazteenen adin-taldean.

Etorrin gazteen kolektiboaren jatorria aztertuz gero, EAEen erroldaturiko gazte atzerritarren erdia Ameriketatik datorrela ikus daiteke (% 50,9). Atzetik Europatik datozen gazteak daude (% 24,5); eta ondoren Afrikatik datozenak (% 18,9). % 6aren azpitik Asiakoak (% 5,6) eta Ozeaniakoak (% 0,1) daude.




Iturria: INE eta bertan egina. Biztanleen Udal Errolda urtarrilaren 1ean

Etorkin gazteengan dauden **nazionalitate ohikoenak** (% 10etik gorako portzentajearekin) kolonbiarra (% 11,7) eta marokoarra (% 10,9) dira. %10aren eta % 5aren artean ekuadortarra (% 9,9), errumaniarra (% 8,6), boliviarra (% 8,5), portugesa (% 6,3) eta brasildarra (% 5,3) daude. Zerrendaren amaieran atzerritar gazteen % 5a baino gutxiago osatzen duten nazionalitateak daude: argentinarra (% 3,2), txinatarra (% 3,2) eta aljeriarra (% 1,8)

Etorkin gazteak lurralde historikoen arabera

Erdia baino gehiago Bizkaian kokatuta daude (% 51,9); Gipuzkoan guztizkoaren % 28,7 daude; eta Araban, % 19,3. Neska etorkinak mutil etorkinak baino ugariagoak diren lurralde bakarra Bizkaia da.

EAE osoan bezala, hiru lurralde historikoetako bakoitzean dauden gazte atzerritar gehienek 25 eta 29 urte bitarteko adina dute.



Iturria: INE eta bertan egina. Biztanleen Udal Errolda urtarrilaren 1ean

Bai Bizkaian bai Gipuzkoan, etorkin gazteen jatorrizko kontinenteak hauek dira, nagusiki: Amerika, Europa eta Afrika. Araban, aldiz, beste bi lurraldeetan bezala, etorkin gazte gehienak Ameriketatik etorri arren, bigarren postuan Afrikatik datozenen kolektiboa kokatzen da eta, hirugarrenik, Europatik datozenena.

Nazionalitate nagusienei dagokienez, % 10etik gora osatzen dutenen artean Araban marokoarrak (% 16,2) eta kolonbiarrak (% 13,4) nagusitzen dira; Bizkaian boliviarrak (% 13,8), kolonbiarrak (% 13,2) eta errumaniarrak (% 11,1); eta Gipuzkoan, ekuadortarrak (% 13,1) eta marokoarrak (% 10,8).

Atzerriko nazionalitatea izanik, EAEn erroldatuta dauden 15 eta 29 urte bitarteko biztanle atzeritarrak, lurralde historikoen arabera. Portzentajeak. 2006

Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
Maroko	16,2	Bolivia	13,8	Ekuador	13,1
Kolonbia	13,4	Kolonbia	13,2	Maroko	10,8
Portugal	8,9	Errumania	11,1	Portugal	9,3
Ekuador	7,5	Maroko	9,1	Kolonbia	8,0
Errumania	5,6	Ekuador	9,0	Errumania	6,1
Aljeria	4,9	Brasil	5,9	Argentina	5,4
Brasil	4,9	Txina	4,0	Brasil	4,5
Txina	3,0	Portugal	3,7	Frantzia	2,9
Pakistan	2,5	Argentina	2,4	Bolivia	2,8
Bolivia	2,5	Venezuela	2,1	Pakistan	2,7

Iturria: INE eta bertan egina. Biztanleen Udal Errolda urtarrilaren 1ean

Erlazionatutako datu-taulak:

1. taula (pdf, 20 kb)
2. taula (pdf, 26 kb)
3. taula (pdf, 27 kb)
4. taula (pdf, 31 kb)

Erlazionatutako estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiko estatistikak](#)